

ipuinak

e-korrika

e-korrika

e-korrika

e-korrika



mutualia

AURKIBIDEA:

Urtsa Erraztiren Sarrera
AEK-ren Sarrera
Egitasmoaren azalpena
Ipuinaren hasiera
Lehen ipuinaren bukaera
Bigarren ipuinaren bukaera
Hirugarren ipuinaren bukaera
Laugarren ipuinaren bukaera
Bostgarren ipuinaren bukaera
Seigarren ipuinaren bukaera

Urtsa Erraztiren sarrera

Korrika nire asmoetan: neskatala euskaldun liraina, maitagarria, urtez urte gazteagoa, geurea, Mutualiarena ere bai. Geu ere gaztetzen ari gara urtez urte euskara gure artean zabalagoa baita . Mutualian denon artean egiten dugun euskalduntze ahaleginaren ziurtagiria izan da e-korrika ipuina. Gaur garatzeak ekarri dituen onurak etorkizunean ikusiko ditugu. Era guztietara ere esan behar dut harrotasunez betea nagoela Mutualiaren zenbait jendek egindako ahaleginagatik (Pandemia latzean egin ez zen korrika fisikoa, guk posible egin dugu). Laster KORRIKA berriz izango da gure kale eta bideetan. Egin genuen kanpaina izan bedi MUTUALIAREN euskararekiko konpromezu agiria.

Ilustrazioak: Kepa Bilbao (Mutualiako Aholkularitza Juridikoa)
Diseinua eta konposizioa: Mutualiako Komunikazio Alorra

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin
lankidetzan duen 2 zk.ko mutua

Egoitza operatiboa:
Henao, 26
48009 Bilbao
Telefonoa: 944 25 25 00
www.mutualia.eus
2022

AEK-ren sarrera

Pozgarria da KORRIKAren moduko ekimen batek bide berriak urratzea; pozgarria da, halaber, AEK-KORRIKAk lagun eta aliatu berriak topatzea bide horietan barrena.

Mutualiak antolaturiko e-KORRIKA-IPUINA ekimenak lagundu egiten digu AEK-KORRIKAren mezua eta helburua zabaltzen.

AEK-KORRIKAk elkarlana dute oinarri, eta, elkarlan horren barruan, oraingo honetan Mutualiarekin batera e-KORRIKA-IPUINA ekimena abian jartzeak aukera ematen digu euskara zabaltzeko.

Bagaude ekimen honek eragina izango duelakoan Mutualian bertan euskara are gehiago erabil eta susta dadin; izan ere, AEK-KORRIKA n uste dugu oso garrantzitsua dela euskararentzat esparru berriak lortzea, hizkuntza-ohiturak aldatzea eta gure mintzairari balio erantsia ematea.

Aurrerantzean, espero dugu horrelako beste egitasmorik abiaraztea, elkarlana sendotzea eta euskararen ikaskuntzan eta erabileran urrats sendoak egiten jarraitzea.

AEK-KORRIKAren oinarriak arestian aipatu horiek dira; eta, Mutualiak egin duen bezala, honen bidez gonbidatu nahi ditugu Mutualiako bezero eta bazkideak oro ekimen berriak sortzera. Euskara guztiona eta guztiontzat da, euskarak denon beharra du, eta AEK-KORRIKA beti izango duzue bidelagun euskara ikasteko, sustatzeko eta erabiltzeko orduan.

Egitasmoaren azalpena

Duela bost urte, KORRIKAren 20. edizioan sortzaileei omenaldia egin zitzaien. KORRIKAren sortzaile bat, Urtsa Errazti jauna, gure Presidentea denez, Mutualian ere omenaldi txiki bat egin nahi izan genion. Horretarako, Mutualiak e-Korrika sortu zuen. Urtsak lekuko barruan zegoena idatzi zuen, gure informatika sailak enkriptatu egin zuen eta 11 langileri bidali genion. Langile horiek beste langile banari bidali egin behar izan zion e-posta eta horrela, hamaika ibilbide egin genituen. Gero, langileek elkarri lekukoa (e-posta) pasatu zioten ibilbideak osatu arte. Eginbeharra mezua desenkriptatzea zen eta langile bik lortu zuten. Azken egunean, lekukoaren mezua desenkriptatuta langile guztiei bidali genien.

2019an, lekukoa aldatu genuen. Ipuin baten hasiera idatzi eta ipuina jarraitzea izan zen eginbeharra. Ibilbidearen kopurua ere aldatu genuen; 21. Korrika izanez, horrenbeste ibilbide sortu genituen.

Ondoren ibilbide guztietatik bat aukeratu genuen. Ipuinean gramatika akatsak daudela badakigu, Mutualiako langile asko ikasten ari dira eta. Baina, horrela uztea erabaki genuen, bakoitzaren ekarpena/ahalegina era originalean mantenduz.

Azkenik pertsona esanguratsu batzuei amaiera emateko eskatu genien.

Ipuinaren hasiera

Herri txiki batean biztanle guztiek erabiltzen zuten bidexka bera iturrira joateko. Oso bidexka polita zen eta guztiek egunero erabiltzen zutenez gero, garbi mantentzen zen. Ibiltzeko oso erraza zen.

Egun batean familia atzerritar bat bizi izatera etorri zen. Ez zuten bidexka hori ezagutzen eta horregatik beste bide berri bat erabiltzen hasi ziren iturrira joateko. Ez zen laburragoa ezta politagoa eta errazagoa ere, baina herriko batzuk ere, bide berri horretatik iturrira joaten hasi ziren.

Ez ziren egun asko pasatu ia guztiak bide berberetik joaten hasi zirela. Horrela bidexka zaharra ahaztu zuten eta bidexka sasiz bete zen.

Pixkanaka bide zaharra zaharkituta gelditu zen, lurzorua pitzatuta, belar txarrak estalita eta iluna. Bere antzinako xarma desagertu zen.

Udako egun eguzkitsu batean iturriaren inguruan bizilagunak beraien pitxarrak urez betetzen ari ziren. Urarekin jolasean ere hasi ziren, zipriztinak elkarri botaz. Halako batean, ahaztuta zuten bide zaharreko belar azpitatik txakur bat zaunkaka azaldu zen.

Txikienak txakurra agertu zen tokiraino hurbildu ziren hura laztantzeko, baina beldurtuta atzera bota zen eta bideko sasitzan ezkutatu zen berriro.

Txiki horietako neskatxo bat, izugarri ausarta eta txakurzale zena, kexkatuta geratu zen oso, eta sasitzan murgildu zen.

Hasieran, oso zaila izan zen sasien artean ibiltzea, baina ostopoak-oztopo

nezkatxoak aurrera jarraitzea erabaki zuen. Tarte bat pasatu ondoren sasitza pixkanaka-pixkanaka txikitu zen, eta txakurra ikusi ez bazuen ere, bide antzinako batean zegoela konturatu zen; bide ederra eta ahaztuta.

Bide eder hori nahiz eta zaharra izan ber erabilpena eman behar zitzaiola pentsatu zuen eta sasiak garbitzeko tresna bila abiatu zen etxera.

Bere gogoak, herritar danak bultzatu zituen lanera, eta bi egunetan bidea hasieran bezain polita eta garbia zuten. Baina orain, neskatok, beste kexka bat zeukan, non zegoen sasi artean agertu zitzaien txakurtxoa? Agian zeozer esan nahi zien? ...



1

...Egun batez herria eta bidearen artean zegoen landa ederrean bere jabea omen zen batekin jolasean ikusi zuen. Jabearengana hurbildu eta azaldu zion txakurtxoarekin izandako esperientzia. Jabeak esan zion berak bidali zuela txakurtxoa atrakzio ea horrela bide zaharra berriz erabiltzea lortzen zuen.

Neskatxoak eskerrak eman zizkion zeren beragatik bide zaharra berpiztu zen eta jadanik inork ez zuen bide berria erabiltzen.

Gizonak erantzun zion “ez horregatik”, ez niri eskertu zeren negozio handia egin dut eta, datorren hiletik aurrera nirea den landa honetan iturrirako pasoaren erdian hipermerkatu bat, taberna eta jatetxeak ereikitzen hasiko naiz. Oso negozio ona da, jende guztia aurretik pasatuko bada.

Urtsa Errazti



2

...Neskatxa eta lagunak txakur jator haren bila hasi ziren. Ordu batzuetan aritu eta gero, azkenean topatu egin zuten: bide ondoko haitzulo txiki batean zegoen, zazpi txakurkumeren ondoan: haien aman zen; dudarik gabe, aurreko egunean janari bila zen abiatua ezkutalekutik kanpo eta horregatik ikusi zuten.

Jakin-minez, umeak koban sartu ziren, hara non, apur bat arakatuta, urrezko txanpon batzuk ere aurkitu zituzten, aspaldi-aspaldikoak!

Neskatxak haren etxera eraman zuen txakur familia osoa, eta denak pozik bizi izan ziren handik aurrera, elkarrekin. Kobazuloko altxorra herri osoaren esku geratu zen, eta auzolanetarako erabili zuten; batez ere, iturrirako bideak beti garbi, eder eta eroso iraun dezan, gaur egun arte.


Mertxe Mujika



3

...Loak ihes egin zion gau horretan neskatoari, eta baita hurrengo egunetan ere. Txakurra ez zen inondik inora agertzen, eta haren bila ibili zen inguru osoan, alferrik baina. Galdera-sorta geratu zitzaion airean neskato tematiari: nondik zetorren bidearen eskizian jarri zion txakurtxoa? Basa-txakurrik ez zen aspaldian bertan, eta beraz, norbaitena behar zuen, baina norena? Galderak eta kezkek zirimolaka nahasten zitzaizkion, susmoa baitzuen egoera hori guztia erraz korapilatuko zela bere gogoan, eta askatu arteko bakerik ez zuela lortuko ongi zekien. Zuzen zegoen bere ama: neskatoaren burua labirinto baten modukoa zen, sarrera-irteerak lortu ezean, bide kaotikoez osatua.

Bigarrenenez deitu zituen neskatoak bere herrikideak auzo-lanera, oraingoan bide berriaren zoko guztiak miatu eta txakurra bilatzeko. Larunbat goizetako hitzordua egin zuten herriko plazan, iturrirainoko bidea zatitan banatu eta taldeka antolatu ziren. Egun osoa eman zuten atzera eta aurrera, sasiak eta baita harripeko zuloak behatzen, baina txakurraren arrastorik ez zutenez topatu, atzera herrira itzuli ziren iluntzerako.



Loa hartu ezinik, amorruz negar egin zuen gau hartan neskatoak. Jario isila hasieran, zotinka bortitza bilakatu zena berehala. Haren hasperenak besterik ez ziren aditzen gauaren erdian, baina bat-batean leihoaren azpitik aihen egiten zuen animaliatxoa sumatu zuen neskatoak. Zitzu bizian abiatu zen eskaleratik behera, kalera irten eta hantxe, atarian zegoen txakurra, bere begi argiekin zuzen-zuzenean so eginez. Eskua luzatu zuen neskak, laztandu guran, berriro ihes egingo ote zion beldurrez. Eta halaxe gertatu zen: txakurra korrika bizkor abiatu zen etxetik herrirako bidean, neska atzetik zuela, oinutsik eta arnasa estututa.

Plazara heldu zenean gelditu zen txakurra eta neskak, ezin sinetsirik, orduantxe ikusi zuen orubearen erdi-erdian bor-bor egiten zuen iturri sortu berria.

Pili Kaltzada

4

...Euskara da gure bide zahar maitea, Aitorren hizkuntza zaharra; gure kulturaren egarria asetzeko ezinbestekoa den bidezidor hestua. Beste bide batzuk eraikiko dizkigute, sastrakaz, sasiz eta oztopoz gurea estaliko, baina gure kontzientziak zakur galduaren zaunkak entzuteko gai diren artean, haren xarma usaindu eta ferekatzeko grina itzaltzen ez den artean, iturrirako bideak bizirik iraungo du, belaunaldiz belaunaldi, mendez mendez. Entzuten al duzu zakur zintzoaren zaunka?

Ketxus AmaSorrain



5

...Burutazio horietan zebilela, bat-batean, zaunka hotsa entzun zuen. Inguruan begiratu, baita lagun zituen herritarrek ere, baina ez zen zakurrik ikusten. Neskatoa, ordea, ez zen begiratzearekin konformatu eta aitaren batean zaunka hotsa zetorren norabiderantz irten zen korrika, ziztu bizian.

Bihotzeko taupadak gero eta azkarrago, arnasestuka, tximista bezala han zihoan gure neskatoa. Ezustean, txakurra geldirik, belarriak tente eta buztana dantzan, aurrez aurre zeukan. Bide erdian. Ez, ordea, garbitu berri zuten bide zaharrean. Azken aldian erabiltzen zuten bide berriaren baizik.

Neskatoa, tupustean gelditu egin zen. Txakurrari begiratu zion, irribarre gozoz, pozez gainezka. Eskuak luzatu eta txakurra zegoen lekurantz gerturatzen hasi zen. Bere

zorionerako, txakurra, pausu motel eta laburrak emanez, buztana etengabe dantzan, hurbiltzen hasi zitzaion. Neskatoak txakurra besarkatu zuen, galdua uste eta ezustean aurkitzeak ematen duen indarrarekin. Txakurra mihiatz lastandu zuen neskatoa.

Neskatoa berehala jabetu zen, lagun berri hura, leiala, zintzoa eta maitagarria, bidelagun izango zuela bizitzako bide eta bidexketan barrena. Bide zaharrak, berriak eta oraindik ezagutzen ez zituenak. Hori zen txakurrak irakatsi zion lezioa: zoriona ez dagoela betiko bideetan bakarrik. Aurkitzeke ditugunetan ere zain daukagu.

JoSemi Ayerza


6

...Denborak aurrera egin zuen eta bide zaharrarekin gertatu zen bezala, bide berria sasiak hartu zuen. Herritarrek baztertuta utzi zuten iturrira joateko. Eta ez zen txakurraren berririk egon denbora luzez.

Halako batean, ordea, neska txikia gazte bihurtu zelarik, iturrian zegoela zakur baten zaunka entzun zuen. Sasiak hartutako bidetik zetorren eta berehala konturatu zen urte batzuk lehenago agertutako zakurra zela.

Neska gaztearen ekimenez herritarrek bide berria garbitu eta txukundu zuten. Eta handik aurrera bide biak erabiltzen hasi ziren.

Bingen Zupiria





Lehen e-Korrika antolatzea Mutualian euskararen erabilera indartzeko asmoz sortutako ideia izan zen; lekukoa posta elektronikoaz pasatuz. Oraingoan, bigarren e-Korrika honetan, eskerrak eman nahi dizkiet bertan parte hartu duten Mutualiako pertsona guztiei, eta baita amaiera alternatiboak gehitu dituzten Mertxe Mujikari, Pilar Kaltzadari, Ketxus Amasorraini, Jose Miguel Ayerzari, Bingen Zupiriari eta Urtsa Erraztiri ere. Hemen amaitzen da ipuin hau, baina Mutualia euskaldun baterako bidearen beste etapa bat baino ez da.

Urtsa Errazti.

Mutualiako presidentea

Mertxe Mujika.

AEK

Pilar Kaltzada.

Kazetaria

Ketxus Amasorrain.

ELAY

Jose Miguel Ayerza.

ADEGIko zuzendari nagusia

Bingen Zupiria.

Kultura Eta Hizkuntza Politikako Sailburua Eta Bozeramailea